

ITALIA ETORKINEN AURKA

Gerra judiziala, espioitza eta nazioarteko akordioak xenofobiaren esanetara

Haien aburuz, legez kanpoko immigrante bat bortxatutako emakume bat baino garrantzitsuagoa da», esan zuen Italiako presidente den Giorgia Melonik 2022ko hauteskunde-kanpainako mitin batean.

Ez da berria ultraeskuinak migrazioa bandera bihurtzea, are gutxiago Europa hegoaldeko herrialde bat izanik. Hala ere, Meloni Quirinal jauregian sartu zenetik gobernu italiarrak erasoaldia areagotu egin du, ez migratzaileen aurka bakarrik, baita haiei laguntzen saiatzen diren boluntarioen aurka ere.

Oker legoke eraso hauek Meloni boterera iritsi izanari soilik egoztea. Bera baino lehenagoko gobernuek hainbat politika murriztaile ezarri zituzten immigrazio irregularra geldiarazteko.

2018an, Matteo Salvini (Lega), Barne ministro izendatu zutenean, gobernu kanpoko erakundeek Mediterraneoan erreskatatutako migratzaileei portuak ixteko agindu zuen, eta erakunde horien jarduna kriminalizatu zen. Segurtasun Dekretuak (2018–2019) onartu ziren: babes humanitarioa ezabatu zen, egoitza-baime-nak lortzea zaildu, eta asilo-eskatzaileentzako udal-zerbitzuak murriztu ziren.

Libiarekin 2017an sinatutako hitzarmen baten bidez, hango kostazainek migratzaileak itsasoan atzeman eta Libian sartu zituzten berriro, bizi-baldintza gogorretan. Era berean, *hotspot* sistemaren bidez iritsi-berrien sailkapen azkarra ezarri zen, eta kanporatze-zentroak (CPR) handitu ziren. Hala ere, Fratelli d'Italiako bu-

📁 **ESKUBIDEAK** / Markel DE BILBAO

Gerra judizialaren, espioitzaren, eta beste herrialdeekin sinatutako akordioen bitartez, Italiako Gobernuak migranteen eta gobernu kanpoko erakundeen langileen aurka egiten du egunero. Sarritan, legaltasunetik at dauden erremintak baliatuz, gerra judizialek hasi eta ezkutuko espioitzaraino. Xedea, asilo-politika gogortzea.

ruak gobernatzen duenetik, migratzaileen eta gobernu kanpoko erakundeen aurkako erasoak zuzenagoak eta bortitzaioak izan dira. Etengabeko gerra judizialek hasi eta ezkutuko espioitzaraino, hirugarren herrialdeekin legezatasun zalantzararikoko akordioak eginez. Exekutibo berriak helburu argi batekin ezarri ditu neurri hauek: asilo-politika gogortu eta immigrazio irregularra oztopatzea.

GERRA AUZITEGIETAN

Eremu judiziala, lege nazionalak zein europarrek babestua, Italiako Gobernuak immigrazioa geldiarazteko duen tresna nagusietako bat da. Ontziak ibilbide luzeagoak egitera behartzen dituzten araudieta-tik hasita, delituak gaizki interpretatzeraino, epaileak eta auzitegiak Mediterraneoko dramaren azken bermatzaile—edo arduradun— bihurtzen dira sarritan.

Legearen interpretazioa zabala da, eta, Europako Batasuneko «Bideratzaile Paketea» delakoaren ildotik, magistratuek migratzaileak zein langile humanitarioak prozesatzeko tresna eraginkor bihurtu dute «immigrazio irregularra bultzatzeko» delitua.

Delitu horrek, teoriarik, pertsonen salerosketarekin negozioa egiten duten mafiei aurre

egitea du helburu. Dokumentu faltsuen, garraio klandestinoaren, ezkutatzearen, informazioa faltsutzearen edo beste edozein engainuren bidez, mugak legez kanpo gurtzatzea errazten duena zigortzen du. Hala ere, horren aplikazioa haratago joan da. «Kinsa kasua» dugu horren adibide. Indarkeriaz eta heriotzaz beteriko giroa atzean us-

teko asmoz, Kongotik ihes egin eta Boloniako aireportura iritsi zen O.B, bere alabarekin eta ilobarekin batera. Europako lurzorua zapaldu bezain laster, «immigrazio irregularra sustatzearengatiko» delitua leporatu zioten, bi «adingabere-ntzako dokumentazio faltsua erabiltzearengatiko astungarria» barne; aireportuan bertan atxilotu zuten.

Sei urteko borroka judizialaren ondoren, non neskengandik banandu zuten, Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak ebatzi zuen arrazoi humanitarioengatik adingabe bat tutoretzapean irregularlari sartzea ez dela delitua.

Horrez gain, azpimarratu zuen pertsonen trafikoa arautzen duten legeek ezin dutela EBko Oinarritzko Eskubideen Gutunarekin gatazkarik sortu,

Italiara iritsitako migratzaileak Lampedusan zabalduak «Hotspot»-ren kanpoaldean.
Cecilia FABIANO/LaPresse via ZUMA Press/DPA-EUROPA PRESS



bereziki haurren interes gore-nari dagokionez. Bere aboka-tuak «historikotzat» jo zuen erabakia, eta «Bideratzaile Pa-ketearen» aurrean kontrapisu garrantzitsutzat finkatu zuen.

Arci Porco Rosso gobernuz kanpoko erakundeak, egoitza Palermon duenak, urteak da-ramatza migratzaile horien «kriminalizazioa» dokumen-tatzen eta salatzen. 2021eko txosten batek, Alarm Phonere-kin batera egindakoak, agerian utzi zuen 2013 eta 2020 bitar-tean 2.559 pertsona akusatu zi-tuztela horrelako delituengatik. Azken urteko txostenean, 2024an, 106 kasu soilik zenba-tu zituzten.

Migratzaileak ez ezik, beste batzuk ere izan dira kriminali-zazio horren jomuga. «Medite-rraneoko auziak» agerian uz-ten du GKEek gobernuaren

Gobernuak irekitako beste auzi bat GKEei egindako espioitza da. Otsailean agerian geratu zen Paragon Solutions Israelgo espioitza enpresarekin lotzen duen iskanbila

Erasoaldia ez da delituen interpretaziora mugatzen. Egungo Barne ministroaren Piantedosi Dekretua erreskateko GKEen lana oztopatzera bideratutako arau bat da

erasoaldian duten funtsezko rola. 2020ko abuztuan, Maersk Ettiene petrolio enpre-sa daniarrak alerta bat jaso zuen Maltako agintariengan-dik, itsasoan noraezean ze-goien migratzaile talde bat erreskatatzeko. Eskifaiak erreskatea burutu zuen, ez Maltak ez Italiak ez zuten lehorreratzea baimendu.

Bitartean, 27 pertsona 38 egunez egon ziren ontzitik jai-tsi barik, Mediterranea gobe-rnuz kanpoko erakundeak le-kualdatzeko eskaintza egin zuen arte. Zortzi hilabete ge-roago, Maersk ontzi enpresak 125.000 euro eman zizkion erakundeari, eskertzeko keinu gisa. Fiskaltzarentzat, ordea, dohaintza hori Mediterraneo-ak pertsonen trafikoarekin ira-baziak dituela erakusten duen ustezko froga da.

Erasoaldia ez da delituen in-terpretaziora mugatzen. Egun-go Barne ministroaren Piante-dosi Dekretua erreskateko GKEen lana oztopatzera bide-ratutako arau bat da.

2023an «migrazio ordena-tua» bermatzeko «jokabide kode» gisa aurkeztu zen, eta ontzi humanitarioak operazio bakoitzaren aurretik baimena eskatzera behartzeaz gain, bi-daia bakoitzeko erreskate bat baino gehiago egitea debekatu zieten. Hori gutxi balitz, tra-bak jartzen dizkiete berez bai-

Italiako lehen ministro ohia, Matteo Salvini, artxiboko irudi batean, 2024ko abenduan, Palermon bere kontrako auzibide judizialean. Igor PETYX / EUROPA PRESS



menduta dutena baino pertso-na gehiago jasotzeko eta, sarri-tan, herrialdearen beste pun-tan dauden lehorreratze portuak esleitzen dizkiete.

Legearen eta haren interpre-tazio murriztailearen barnean, Italiako auzitegiak gero eta oz-topo handiagoak jartzen ari dira bai migratzaileen bidean, bai haiei laguntzen saiatzen diren GKE denenean.

ESPIOITZA, ARMA ISIL GISA

Italiako Gobernuak irekitako beste auzi bat GKEei eta haien ekintzaileei egindako espioi-tza da. Otsailean agerian gera-tu zen Meloniren gobernu-a Paragon Solutions Israelgo es-pioitza enpresarekin lotzen duen iskanbila. 2019an sortua, Paragonek Graphite programa erabiltzen du, hainbat gober-nuk elkarrizketa pribatuetan

eta mezularitza talde itxietan sartzeko erabiltzen dutena.

Italiako kasuan, Mediterra-nean Saving Humans GKEko bi ekintzaile izan ziren biktimak: Luca Casarini eta Beppe Cac-cia, biak ere erreskate lanetan sarri ibiltzen direnak. Wha-tsApp aplikazioaren jabe den Meta konpainiak eman zuen abisua, eta hark eman zien kaltetuei espioitzaren berri. Pegasus kasuaren ereduari ja-rraituz, Metak The Citizen Lab zibersegurtasunean espeziali-zatutako zentrorra joatea go-mendatu zien, sarkina baiehta-tu baitzuen.

Meloniren Gobernuak edo-zein inplikazio ukatu zuen arren, salaketaren ondoren gertatutakoak lotura nabar-mena iradokitzen du. Gober-nu italiarrak «klausula mora-lak» errespetatu ez izanagatik,





Europako Batzordeko
presidente Ursula Von der
Leyen Italiako lehen
ministroa den Giorgia
Melonirekin, artxiboko
irudi batean.
Cecilia FABIANO / EUROPA PRESS

Paragonek kontratua eten zuen. Horrez gain, espioitza 2019an hasi zela adierazi zuen The Citizen Labek, Giuseppe Conte (5 Izar Mugimendua) eta Mario Draghiren gobernupean, agerian utziz jarduera horiek ez direla egungo exekutiboarenak bakarrik.

Matteo Salvinik ez zion kasuari garrantzi handirik eman nahi izan, eta adimen zerbitzuen arteko «kontu garbiketa» gisa kalifikatu zuen.

Espioitza, hala ere, ezin hobeto egokitzen da Gobernuak migratzaileen eta horiek defendatzen dituztenen aurka egiten duen erasoaldiarekin.

Mediterranea Saving Humansek, Libiatik ihes egiten duten pertsonak erreskatzatzeaz gain, Italiako Gobernuak figura gatazkatsuekin dituen loturak ere salatu ditu, hala

nola Libian migratzaileak hiltzen diren espetxeetako baten arduraduna den Osama Almasriekin dituenak.

Pasa den urtarrilean, Italiak Almasri atxilotu zuen Milanen, gizateriaren aurkako krimenengatik salatuta, Brasilen eta Milanen arteko partida batera zihoala. Akusazioak gorabehera eta Nazioarteko Zigor Gortea jazarri arren, Meloni-

Mediterranea Saving Humansek, Libiatik ihes egiten duten pertsonak erreskatzatzeaz gain, Italiako Gobernuak figura gatazkatsuekin dituen loturak ere salatu ditu

Almasriren kasua Europa urteetan aplikatzen ari den muga esternalizazioaren adibide argia da, non erregimen autoritarioekiko lankidetzak eskubideen defentsaren gainetik jartzen den

ren gobernuak handik gutxira askatu zuen, «prozedura akatsak» argudiatuz, eta Tripolira bueltan bidali zuen hegaldi ofizial batean. Oposizioaren esanetan, keinu hori mesede bat izan zen Libiarentzat, duela zortzi urte sinatutako migrazio akordioak mantentzearen truke.

Almasriren kasua Europa urteetan aplikatzen ari den muga esternalizazioaren adibide argia da, non erregimen autoritarioekiko lankidetzak giza eskubideen defentsaren gainetik jartzen den.

2017. urtean, Italiak eta Libiak Ulermen Akordioa sinatu zuten, «legez kanpoko immigrazioa» kontrolatzeko asmoz. Ordutik, Italiak Libiako kostazainekin lankidetzan jardun du ontziak desbideratzeko eta pertsonak Libiako atxikitze-

zentroetara itzultzeko. Mugarik Gabeko Medikuek (MSF) erakundeak, Nazioarteko Dosierrak eta Nazio Batuek giza eskubideen urraketa sistematikoak dokumentatu dituzte zentro hauetan.

2020an berritu zen akordioa, eta indarrean jarraitzen du. Newcastleko Unibertsitateak egindako ikerketa batek ondorioztatu zuen hiltzeko probabilitatea handiagoa dela Libiako kostazainek zaindutako eremuetan, eta migrazio fluxuak geldiarazi beharrean, Mediterraneoko mendebalderantz mugitu direla.

ALBANIAR, ESPETXE ZENTROAK

«Soluzio berritzaileak» eta «paradigma berriak» bilatzeko aitzakiarekin, Melonik Albaniako espetxe zentroen sorrera ere bultzatu du, esternalizazio politikaren isla gisa. Legearen ziurgabetasuna eta ezartzen duen aurrerari arriskutsua gorabehera, Gobernuak 40 migratzaile eraman zituen apirilean ondoko herrialdean kokatutako instalazioetara. Horrela, Meloni, EB «porrot egindako proiektutzat» jotzetik, neurri batean, «Europako migrazio politika» ezartzera igaro da. Horren erakusgarri da EBk, itzulketak bizkortzeko helburuarekin, zazpi herrialde «seguru» izendatzeko hartu berri duen erabakia, horien artean dago Albania.

Gobernuz kanpoko erakundeetako etengabeko salaketek Europako gobernuak jomugan kokatu dituzte. Ekintzaileen eta haien erakundearen aurkako eraso berrituek duela urte batzuetatik migratzaileen eskubideak errespetatzeko eta babestea eskatzen duten ahotsak isilaraztea besterik ez dute biltzen.